

**ADMINISTRAZIOKO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA IBARRA KIROLDEGIAREN GARBIKETARAKO.**

**LEHENENGO KLAUSULA. Objektua eta kalifikazioa**

Kontratuaren helburua da, Ibarra Kiroldegiaren garbiketa zerbitzua, dagozkigun plegu hauetan eta baldintza teknikoaren pleguan xedatutakoarekin bat etorritz.

CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 90911200-8

Emango diren zerbitzuak bi motatakoak izan daitezke:

- oinarrizko zerbitzua

Aukerako zerbitzuak

- puntuan jartzeko garbiketak
- material zehatzen garbiketak
- garbiketa bereziak

Bai oinarrizko garbiketetan baita aukerazkoetan ere, lizitatzailleek proposatutako zerbitzu ordu kopuruak estimaziozko izaera edukiko du eta esleipena egin ondoren, Udaleko Zerbitzu Teknikoek, zerbitzu ordu errealak egokituko dituzte, hala behar izanez gero. Nolanahi ere horrek ez dio esleipendunari inolako kobrantza berezirik jasotzeko eskubiderik emango.

Enpresa esleipenduna enplegu emaile moduan subrogatuko da, plegu honen eranskinean azaltzen diren ezaugarriak edukiko dituzten langileen lan kontratuetan. Honela, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6.1 artikulua betetzen da.

Zehazten den kontratuak, zerbitzuetako administrazio kontratuaren kalifikazioa du, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 10. artikulua ezartzen duen bezala.

**BIGARREN KLAUSULA. ESLEIPEN PROZEDURA ETA ERA**

Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua arautzen duen kontratua, prozedura ireki bidez esleituko da, eta esleipen horretara, interesa duen edozein enpresarik aurkeztu ahal izango du proposamena, kontratuaren terminoen negoziazio oro baztertuta geratuz, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 157. artikuluaekin bat etorritz.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik onena zehazteko, hainbat irizpide edukiko dira kontuan. Irizpide horiek kontratuaren helburuari zuzenean atxikitakoak izango dira, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.1. artikulua ezartzen duen bezala eta Plegu honetako zortzigarren klausularekin bat etorritz.

**HIRUGARREN KLAUSULA. Kontratugilearen perfila**

Gardentasuna eta bere kontratu-jarduerari buruzko informazioa jendearen eskura egotea ziurtatu ahal izateko, eta beste publizitate bitarteko batzuk erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek Kontratugilearen Perfila dauka, zeinetara, ondorengo web orrian arautzen diren zehaztapenen arabera sartu ahal izango den: [www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus).

**LAUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren zenbatekoa**

Kontratuaren zenbatekoa 109.572,06 euroko/urteko izango da. Adierazitako zenbatekoari, BEZari dagokion 23010,14 euro balioa erantsiko zaio. Beraz zenbatekoa guztira 132.582,20 euro/ urteko izango da.

Lizitatzailleek aurkeztutako proposamenetan eta kontratua esleituko den bai zifra zehatzean, bai eskaintako prezioetan, ulertuko da aurreikusita daudela ondorio guztietarako: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, eta bereziki Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) eta kontratistaren industri onura.

Prezio horretan derrigorrezkoak diren zerbitzuak soilik aurreikusiko dira. Aukerazko zerbitzuetarako lizitatuzaileek, garbiketa zerbitzuaren orduko prezioa zehaztu beharko dute aurkezten duten proposamen ekonomikoan, zeina gainera, erreferentzia bezala erabiliko den, baldintza teknikoaren pleguan ageri diren aukerazko zerbitzuen kalkulurako.

Dokumentazioa osatzen ez bada, automatikoki 0 puntu emango dira zerbitzu osagarriei dagozkien esleipen irizpideei.

Kontratua esleitu ondoren, prezioan zerbitzua ematearen ondorioz sortuko diren gastu eta zerga guztiak sartuta daudela ulertuko da.

Kontratuaren zenbatekoa 438.288,24 eurokoa da (BEZ ez dago barne), eman litezkeen luzapen eta aldaketak kontuan izanda.

Diru kopuru hori, egungo Udal aurrekontuetan dagokion partidaren kontura ordainduko da. Urteroko diru-kopuruaren finantzazioari buruz, kontratazio organoak urte askotako gastuen konpromisoa hartuko du bere gain aurrekontuen kontura, kontratutik sor daitezkeen gastuei aurre egiteko Kontratazio-organoko gaituak, dagokion kreditua izendatzeko eta gordetzeko konpromisoa hartuko du, horren beharra izan dezakeen etorkizuneko ekitaldiko aurrekontuan.

#### **BOSGARREN KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA**

Ibarra Kiroldegiaren garbiketa zerbitzu-kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere lau urteko luzapenarekin.

#### **SEIGARREN KLAUSULA. Kontratatarien sailkapena, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta kaudimen teknikoa edo profesionala**

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 65.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ez da eskatzen inolako sailkapenik. Lizitatuzaileak, ordea, bere kaudimena zuritu dezake honako sailkapena izanik.

**Taldea: U Azpitaldea: 1 kategoria: A**

Lizitatuzaileek, ondorengo eran ziurtatu beharko dute finantza eta ekonomia kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantza kaudimena.

Lizitatuzailearen edo hautagaiaren urteko bolumena, pasatu berri diren azken hiru urteetako negozio bolumen handieneko urtea kontuan hartuta, gutxienez 164.358,09 eurokoa izango dena. Lizitatuzailearen edo hautagaiaren urteko negozioaren bolumena egiaztatuko da, bere urteko kontuen bitartez, zeintzuek Merkataritza Erregistroan onartuta eta aurkeztuta egongo diren, enpresaria esandako erregistro horretan inskribatua badago, edo bestela inskribatuta egon beharko duen erregistro ofizialean aurkeztuak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariak, beren inbentario liburuaren eta Merkataritza Erregistroak legezkatutako urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute urteko negozio bolumena.

- Kaudimen tekniko edo profesionala:

Azken bost urteetan eraikuntzen garbiketa alorrean egindako zerbitzuen edo lan nagusien zerrenda bat, gauzatze egokiaren ziurtagirierekin batera, gauzatze handienaren urtean metatutako zenbatekoa, kontratuaren balio zenbatetsiaren edo bere batez besteko urterokoaren – kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada-%70aren parekoa edo hortik gorakoa izanik.

#### **ZAZPIGARREN KLAUSULA. Ordaintzeko era.**

Kontratuaren prezioa, pasatako hilabeteka ordainduko da, zerbitzua ematen hasten denetik hasita. Kontratatariak egoki diren fakturak aurkeztuko ditu eta zerbitzuaren arduradunak haiek egiaztatuta ondoren, dagokion zuzendaritza organoak onartuko ditu.

Faktura horietatik, kontratazioaren helburu diren zerbitzuak ez emateagatik edota behar ez bezala emateagatik, edo isuna ordaindu behar izateagatik dagozkion diru-kopuruak kenduko dira, aldez aurretik kontratatari entzun ondoren.

## ZORTZIGARREN KLAUSULA. Proposamenak eta Administrazio Agiriak aurkeztea.

Eskaintzak Udaletxean aurkeztuko dira (Otalora kalea 1) bulego orduetan, iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik hasi eta 40 eguneko epean.

Proposamenak, postaz, telefaxeaz, edo bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarrita dauden lekuetako edozeinetan.

Eskaintzak postaz bidaltzen direnean enpresariak, justifikatu egin beharko du Postan bidalketa noiz egin duen, eta kontratazio organoari egun berean, eskaintza bidalia izan dela jakinarazi, telex, fax edo telegrama bitartez, bertan, espedientearen zenbakia, kontratuaren helburuaren titulu osoa eta hautagaiaren izena adieraziz.

Adierazitako telefax, fax edo telegrama hartu izanaren frogagiria, udal idazkariak egingo duen eginbidearen bitartez egingo da. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, kontratazio organoak, lizitazio iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago jasotzen badu. Edozein eratar, jarritako eguna pasa eta hamar egunera dokumentazioa oraindik ere jaso gabe badago, ez da onartua izango.

Erabili ahal diren bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoek, gainera, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

Lizitzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean ezingo du, beste batzuekin batera Aldi Baterako Enpresa Batasunik sortu, baldin eta bakarka egin badu, ez eta Aldi Baterako bat baino Enpresa gehiagotan egon. Arau hauek hausten dituzten proposamenik ez da onartuko.

Proposamena aurkezteak, Plegu honetako klausulak bete betean eta baldintzarik gabe onartzea dakarkio enpresariari.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak, hiru kartazal itxietan aurkeztuko dira. Kartazal horiek lizitzaileak sinatuta egongo dira eta bertan egoitza adierazi beharko da jakinarazpenak egin ahal izateko; baita kartazalaren izenburua eta ondorengo lema ere: "Ibarra Kiroldegiaren garbiketa zerbitzua kontratazioa lizitatzeko proposamena". Kartazalaren izena ondorengo da:

- **"A" Kartazala: Administrazio-Agiriak**
- **"B" Kartazala: Proposamen Ekonomikoa eta Era Automatikoan Kuantifika daitekeen Dokumentazioa.**
- **"C" Kartazala: Balio Judiziopeko Ponderazioa behar duen dokumentazioa.**

Kartazal bakoitzean aurkeztu beharreko agiriak jatorrizkoak izan beharko dira, edo kopia kautotuak, indarrean dagoen Legeriarekin bat etorritik.

Kartazal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira eta beren zerrenda zenbakitua:

### **A kartazala:**

#### **ADMINISTRAZIO-AGIRIAK**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegilearen 146. artikuluan 4. atalak ahalbidetzen duen neurrian, lizitzaileak 1. atalean ezarritako dokumentazio aurkeztu ordez, aitorten arduratsua aurkeztu beharko du esanez Administrazioarekin kontratatzeko lege ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela. Kasu horretan Kontratuaren esleipendun izateko proposamena jasotzen duen lizitzaileak, eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatu beharko du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik. Aitorpen arduratsua ondorengo eredura lotutakoa:

- ".....Andreak/Jaunak, nire izenean edo ..... enpresaren legezko ordezkari izanik, NIRE ARDURAPEAN AITORTZEN DUT:

- 1º. Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011ko 146 Errege Dekretu Legegileak eskatzen duenaren arabera, bertan aurreikusitako termino eta baldintzetan.
- 2º. 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60. artikuluan kontratatzeke zehaztutako debeku eta bateraezintasunik ez duela (ez berak ezta ordezkatzeko duen enpresak eta bere administrari edo ordezkariak ere).
- 3º. Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta Aretxabaletako Udalarekin, exekuzio aldi ordaindu beharreko tributuzko zorrik ez duela, baimena emanez Administrazio kontratugileari, esleipendun gertatzen bada informazio hori eskuratu ahal izateko, hitzarmenak egin dituen beste Administrazio Publiko batzuen datu baseen bitartez.
- Era berean, 1. atalean eskatutako dokumentazioa duela eta baliozkoa dela egiaztatzeke konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean kontratua esleitu aurretik. Ekainaren 3/2011ko 146 zk. duen Erret Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Testu Bateratua onartzen duena.
- Lekua, data eta lizitatuzailearen sinadura.

Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak aurreko paragrafoan esandako aitortzen arduratsua aurkeztu beharko dute eta gainera haietako bakoitzaren legeko ordezkariak sinatutako dokumentu bat non batasuna eratuko dutenen izena eta batasun horretan aurkezteko zirkunstantziak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzten, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa-batasuna formalki eratzeko konpromisoa eta hasten denetik amaitzen denera arte kontratutik ondoriozta litezkeen betebeharrak betetzeko eta eskubideak gauzatzeko nahikoa ahalmen izango dituen batasunaren ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena.

## B KARTAZALA:

### Proposamen Ekonomikoa eta Era Automatikoan Kuantifika daitekeen Dokumentazioa.

Izen- abizenak.....Jnak/and.k Nortasun Agiria.....n egindakoa, bere izenean edota ..... Enpresaren ordezkartzan, Egoitza soziala ..... Eta Identifikazio Fiskaleko Kodearen zk. .... Ondorengoa adierazten du:

1.- Aretxabaletako Ibarra Kiroldegia garbitzeko irekitako prozedura bidezko kontratazioa arautzen duen Administrazio klausula partikularren plegua eta baldintza teknikoena ezagutzen dituela eta bere osotasunean onartzen dituela.

2.- Bere erantzukizun pean aitortzen duela, enpresa lizitatuzaileak zerbitzua emateko ahalmen juridikoa eta nahikoak diren bitartekoak dituela, emakida hori aurrera eramateko eskatutako baldintza zehatzak betetzen dituela eta ez dagoela indarrean dagoen legeriak aipatzen dituen inolako debekuetan sartuta.

3.- Esandako guztiarekin bat etorriz, kontratuaren helburu diren prestazioak gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, beti ere OINARRIZKO ZERBITZUEI dagokionez urteko honako prezioan: -----€ gehi BEZ-aren % - -----ri dagokion -----€

4.- Aukerako zerbitzuei dagokionez, honako prezioetan egiteko konpromisoa hartzen du:

-Garbiketa erabileren arabera: ----- euro/orduko gehi BEZ-aren % -----ri dagokion ----- euro.

-Puntu jarzeko garbiketa: ----- euro/orduko gehi BEZ-aren % -----ri dagokion ----- euro.

-Material zehatzen garbiketak: ----- euro/orduko gehi BEZ-aren % -----ri dagokion ----- euro.

Lekua, data eta lizitatzaillearen sinadura. LIZITATZAILEA

**C KARTAZALA:**

**Balio Judizioen bidez ponderatuko den dokumentazioa.**

**Memoria bat aurkeztu beharko da, ondorengo atalekin:**

Balio judizioen bidez ponderatuko diren esleipen irizpideei buruzko dokumentazioa, eta zehazki

10. klausulan 2 eta 3 ataletan ezarritako esleipen irizpideen balorazioa ahalbidetuko duten Memoria tekniko eta proposatutako hobekuntzak.

Kartazal honetan ez dira sartuko ez proposamen ekonomikoa ezta automatikoki zenbatu daitekeen esleipen irizpideei dagokien beste edozein datu ere; horiek "B" kartazelan aurkeztuko dira.

Datu horietako edozein "B" kartazalean sartzeak, enpresa lizitatzailera prozedura honetatik kanporatzea ekarriko du.

**BEDERATZIGARREN KLAUSULA. LANEKO HIZKUNTZA.**

Eman beharreko zerbitzuaren ondorioz kiroldegian ohar edo antzekorik jarri behar izanez gero, euskara hutsean idatziko dira, mezua ezaguna edo ulergarria denean. Bestela, piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Beste aukerarik ez dagoenean, elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko dokumentazio idatzia, (fakturak lan-partreak, memoriak, ...) euskaraz idatzita egon beharko da, gutxienez. Bi hizkuntzak erabiliko balira, euskarari emango zaio lehentasuna. Udalaren eta esleipendunaren arteko ahozko harremanean ere euskarari emango zaio lehentasuna.

Behar izanez gero, esleipendunak Aretxabaletako Udaleko Euskara eta Kirol zerbitzuen laguntza izango du.

Plegu hauetan aurreikusitako hizkuntza baldintzen betetze mailaren jarraipena egingo da, eta Euskara eta Kirol zerbitzuek beren balorazioa egingo dute, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

**HAMARGARREN KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.**

Proposamenak baloratu eta ekonomikoki onena den eskaintza zehazteko hainbat esleipen irizpide jarraituko dira.

**1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 55 puntu**

a) DERRIGORREZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA EKONOMIKOA: 49 puntu (B kartazalean sartuko da)

49 puntu emango zaizkio preziorik onenari eta gainontzeko eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko formula ondorengoa izango da: Preziorik baxuenaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko koizientearen emaitza bider irizpideari aplikatu ahal zaizkion puntu guztiak. Hau da:

$$L_p = E_b / L_{e49}$$

Non:

L<sub>p</sub>: Lizitatzaillearen puntuazioa

E<sub>b</sub>: Eskaintzarik baxuena

L<sub>e</sub>: Lizitatzaillearen eskaintza

Ez ohikotzat edo neurrigabetzat hartuko dira, hasieran behintzat, eta lizitatziotik kanpo utzi ahal izango dira, aurkeztutako eskaintzen media aritmetikoa baino 10 unitate portzental txikiago diren eskaintzak. Hori egin aurretik, eskaintza horretan parte diren lizitatzaille guztiei informazioa eskatuko zaie eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa

b) AUKERAKO ZERBITZUEN ESKAINTZA EKONOMIKOA: 6 puntu ( B kartazalean sartuko da)

Jarraian adieraziko den atal bakoitzean , 2 puntu emango zaizkio preziorik onenari eta gainontzeko eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko formula ondorengoa izango da: Preziorik baxuenaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko koizientearen emaitza bider irizpideari aplikatu ahal zaizkion puntu guztiak. Hau da

Puntuan jartzeko garbiketak: 2 puntu  
Material zehatzen garbiketak: 2 puntu  
Garbiketa bereziak: 2 puntu  
 $L_p = E_b / L_{ex}^2$

Non:

L<sub>p</sub>: Lizitatzaileren puntuazioa  
E<sub>b</sub>: Eskaintzarik baxuena  
L<sub>e</sub>: Lizitatzaileren eskaintza

Ez ohikotzat edo neurrigabetzat hartuko dira, hasieran behintzat, eta lizitatziotik kanpo utzi ahal izango dira, aurkeztutako eskaintzen media aritmetikoa baino 10 unitate portzental txikiago diren eskaintzak. Hori egin aurretik, eskaintza horretan parte diren lizitatzaille guztiei informazioa eskatuko zaie eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa

## **2.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRI OROKORRAK: 35 puntu ( C kartazalean sartuko da)**

a) Antolamendu orokorra: 15 puntu. Ondorengo aspektuak baloratuko dira:

- Pleguaren eskakizunetara egokituko den antolamendu proiektua, kontuan izanik: maiztasuna, errendimendua, garbiketa guneak, lan taldeak eta zerbitzua emango den ordu eta egunak.

b) Langileak : 10 puntu. Ondorengo aspektuak baloratuko dira:

- Giza baliabideen kalkuluen zehaztapena, gune eta zerbitzu bakoitzean beharko diren langileei buruzko koadroak eta datuak.

- Langileak: zerbitzuari aurre egiteko enpresak duen langile kopurua, ordezkapen sistema eta aparteko lanak. Zerbitzuarekin zerikusirik ez duten langileak eskura izateko aukera.

- Administrazio, antolaketa eta lanen kontrolako (enkargatua) langileen dedikazioa.

- Zerbitzurako kontratazio berrien politika.

- Formazio plana, egindako ikastaroak, Segurtasuna eta Osasuna Lanean.

c) Kontrol sistemak: 10 puntu. Ondorengo aspektuak baloratuko dira:

- Kontrol sistemen proposamena, zerbitzuaren hasierako planifikazioaren kontrola, zerbitzuaren kalitatearen kontrolak.

- Zerbitzua betetzeko eta antolatzeko bitartekoak (laneko parteak)

## **3.- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAREKIKO PROPOSATUTAKO HOBKUNTZAK: 10 puntu (C kartazalean sartuko da)**

Udalak intereskotzat jotako hobekuntzak soilik puntuatuko dira, eta beti ere esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntza guztiak betetzearen kaltetan gabe.

- Lizitatzaille bakoitzak proposatutako hobekuntza bakoitzeko memoria bat aurkeztu beharko du. Memoria hori oso zehatza izango da, bertan gauzatze epe, plangintza edo egutegia agertu beharko da, aurrekontu xehetua, gutxi gorabeherakoa, eta ondo baloratu eta aztertua izateko egoki irizitako diren gorabehera guztiak.
- Ez dira hobekuntzat hartuko pleguek espresuki eskatutako kontzeptuei buruzkoak, eta ondorioz ez dira baloratuko.
- Proposatutako jarduera hobekuntzat baloratzeko kontuan hartuko da, haren gauzatzeak kostu eta epe errealei dagokienean bai dirutan baita epeetan ere ekarriko lukeen aurreztea.

### **HAMAIKAGARREN KLAUSULA. Kontratazio Mahaia**

Kontratazio Mahaia, Sektore Publikoaren Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2 artikuluekin zerikusia duen, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 10. puntuan ezarritakoarekin, bat etorritz jarraian adieraziko den moduan eratuko da.

- Mahaiaren presidentea: Alkatea, Unai Elkorro Oianguren
- Bokala (Udalbatzaren idazkaria) Fco. Javier Mendizabal Garate.
- Bokala (Udalbatzaren Kontuhartzailea) Juan Antonio Martinez de Aguirre Etxabe.
- Bokala, Jose Miguel Uribarren Azpiazu.
- Bokala, Jose M<sup>a</sup> Segovia Canto
- Mahaiaren Idazkaria, Asier Mujika Altuna.

### **HAMABIGARREN KLAUSULA. Administrazioaren eskumena**

Kontratazio organoak, ondorengo eskumenak ditu, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 210 artikuluekin bat etorritz:

- a) Kontratua interpretatzekoa.
- b) Bere betetzeak sortarazten dituen zalantzak argitu eta konpontzekoa.
- c) Interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratua aldatzekoa.
- d) Kontratua bertan behera uztea erabakitzea, eta egindakoaren ondorioak zehaztea.

— Kontratatistak, azpi-kontratazio suposamenduetarako, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 211 artikuluan aurreikusitako betekizunak bete beharko ditu.

### **HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. Proposamenak irekitzea.**

Kontratazio Mahaia proposamenak jasotzeko epea amaitu eta 3. egunean osatuko da, goizeko 08:00etan, "A" kartazala irekiko du, eta bertan dagoen administrazio dokumentazioa kalifikatuko du.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak, hiru eguneko epea emango du, gehienez ere, lizitatzailak aurkeztutako agirietan antzemandako, konpon daitezkeen akats edo hutsegiteak zuzentzeko.

Ondoren "C" kartazala, beren ponderazioa balio judizioaren pean duten irizpideak jasoko dituen, ireki eta aztertuko du.

Proposamenak irakurri ondoren, eta haiek Pleguetan ezarritako irizpideak eta ponderazioak kontuan izanik baloratzeko, beharrezko irizpide txosten guztiak eskatu ahal izango ditu Mahaiak,

### **HAMALAU GARREN KLAUSULA. Dokumentazioa eskatzea.**

Kontratazio Mahaia berriro elkartu ondoren, balio judiziopeko irizpideei atxikitako ponderazioaren berri emango da. Jarraian "B" kartazala irekiko da. Udalak bere web orrian argitaratuko ditu, kartazal hori irekiko den eguna eta ordua.

Balio Judiziopeko Ponderazioa behar duten irizpideen balorazioa ("C" kartazala) eta ponderazio automatikoa duten irizpideena ikusirik ("B" kartazala ) Kontratazioa Mahaiak kontratuaren behin behineko esleipenduna proposatuko du.

Kontratazio organoak, ekonomikoki eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileri eskatuko dio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasitako hamar eguneko epean, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dituela egiaztatuko duten frogagiriak aurkez ditzala, edo kontratazio organoari baimena eman diezaiola, eskatutakoa egiaztatuko duten agiriak zuzenean eskatzeko. Baita Kontratua gauzatzeko erabiliko dituen bitartekoak egiazki dituela egiaztatuko duten frogagiriak, beti ere azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikuluekin bat etorritz eta egoki den behin betiko bermea eratu izanarenak.

### **HAMABOSGARREN KLAUSULA. Behin-betiko bermea:**

Ekonomikoki onena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailleak, esleipenaren zenbatekoaren %5aren bermea ordaindu duela egiaztatu beharko du, Balio erantsiaren Zerga kenduta.

Berme hori ondorengo eratako batean ordaindu ahal izango da

a) Dirutan edota Zor Publikoko baloreetan ordaindu ahal izango da, kasu bakoitzean, Lege honen garapen arauetan ezarritako baldintzak betez. Dirua, eta jasotako baloreen ibilgeketaren ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean utziko dira, edo, Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzen barruan dauden beren sukurtsaletan, Autonomia Erkidegoetako Kutxetan edo establezimendu publiko baliokideetan, edo Lege honen garapen arauak ezarriko duten era eta baldintzetan, ondorioak izan behar dituzten Tokiko Erakunde Kontratugileetan.

b) Espainian jarduteko baimena duten, banku, kutxa, kreditu kooperatiba, kreditu finantza establezimenduak eta elkarrekiko bermeko elkarteren batek, Lege honen garapen arauak ezarriko dituzten era eta baldintzetan emandako abalaren bitartez; abal hori aurreko a) letran adierazi diren establezimenduetan utzi beharko da.

Lege honen garapen arauak ezarriko dituzten era eta baldintzetan, sektorean jarduteko baimena duen aseguru etxe batekin egindako, Kauzio aseguru-kontratuaren bitartez. Aseguruaren ziurtagiria, aurreko a) letran adierazi diren establezimenduetan utzi beharko da.

Bermea ez da itzuli edo bertan behera utziko, berme epea iraungi eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme honek, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 100 artikuluan dauden kontzeptuei erantzun die.

#### **HAMASEIGARREN KLAUSULA. KONTRATUA ESLEITZEA**

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleitu egin beharko du, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lanegunetako epean.

Ezingo da lizitazio bat hutsik utzi, Plegu honetan aipatzen diren irizpideekin bat etorri onargarria den eskaintza edo proposamenik badago.

Esleipena arrazoitu egingo da, hautagai edo lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta horrekin batera, kontratu egilearen perfilean argitaratuko da.

Jakinarazpenak edozein kasutan, kanpoan geratu den lizitatzaileri edo baztertutako hautagaiari esleipen erabakiaren aurka, arrazoitutako errekurtsioa tartekatzen utziko dion beharrezko informazioa edukiko du. Eta bereziki ondorengoak azalduko ditu:

Baztertutako hautagaiei dagokienez, beren hautagaitza baztertu izanaren arrazoiak azalpen laburra.

Esleipen prozeduratik kanpo geratu diren lizitatzaillei dagokienez, beren eskaintza ez onartu izanaren arrazoiak, era laburrean.

Edozein kasutan, esleipendunaren izena, hautatua izan den esleipenlariaren proposamenak dituen, hautaketarako erabakigarriak izan diren ezaugarriak eta abantailak, eskaintzak onartu zaizkien gainontzeko lizitatzaileren eskaintzek ez zituztenak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen perfilean, haren formalizazioa noiz egingo den adieraziko da.

#### **HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA. Kontratua formalizatzea.**

Kontratazio organoak kontratua proposamen onena egiten duen lehiatzaileari esleitzea erabakiko du. Esleipena HIRU HILABETEKO epean egingo da proposamenak irekitzeko egunaren biharamunetik kontatzen hasita, eta lehiatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta Udaleko kontratugilearen eskakizunetan argitaratuko da.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Agiri hori zehaztasunez egokituko da lehiaketako baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

#### **HAMAZORTZIGARREN KLAUSULA. Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak.**

- Enpresa esleipendunak, Plegu honetan xedatutakoa jarraituz bete beharko du kontratuaren helburu den zerbitzua.

- Garbiketa produktuak eta erabiliko den makineria enpresa esleipendunarenak izango dira, eta hark zerbitzuaren emakidan goi mailako kalitatea lortzeko beharrezko diren tresnak eta produktuak edukiko ditu.

- Erabiliko diren garbiketa produktuak neutroak izango dira eta garbitu beharreko gainazalerako egokiak, aplikaziozkoa den ingurumen araudia betez.

- Zerbitzua, kiroldegian aurrera eramaten diren lanaren eta jardueren garapenari kaltetuko ez dioten orduetan eman beharko da.

-Gaezan, garbiketa lanak amaitu ondoren, alarma aktibatu beharko du.

Enpresa esleipenduna izango da, garbiketa produktuak edo makineria oker erabiltzeagatik, Ibarra Kiroldegiko bulegoetan eta instalazioetan eragindako kalte guztien erantzule.

Enpresa esleipendunak, zerbitzua behar bezala eman ahal izateko langileak kontratatzeako konpromisoa hartuko du; haiekin lan harremana sortuko du eta ondorioz behartuta egongo da, lan harreman, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasuna eta higienearen gaietan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzera.

Garbiketa enpresak pertsona bat izendatuko du, zerbitzuaren emakidaren funtzionamenduz, kalitateaz eta eraginkortasunaz arduratzeko eta harekin izango ditu Udalak zerbitzuarekin zerikusia duten harreman guztiak.

Udalak ikuskapenak egin ahal izango dizkie, bai langileei baita egindako lanari ere, txostena eginez eta zerbitzuaren emakidaren arduradunari emanez.

Kontratua, bere klausuletan eta pleguetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da eta haren interpretaziorako, kontratazio organoak kontratistari emandako aginduekin bat etorriz.

Kontratista, aurrera eramango dituen lanen, prestazioen eta egindako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da; baita, kontratuaren gauzatzean egindako hutsegite, akats, metodo ezegoki edo ondorio okerrekin Administrazioari edo beste hirugarren batzuei eragiten dizkieten ondorioen erantzule ere.

Gainera ondorengo obligazio zehatzak izango ditu kontratistak:

Kontratistak kontratua behar bezala gauzatzeko giza baliabideak eta materialak jarri beharko ditu (azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikulua).

Kontratuak bete egin beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduko eta hitzarmenezko xedapenak.

Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikulua betez, lizitatuak adierazi beharko dute esleipena jaso ezkerreko langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa eta, halaber, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman behar da, behin kontratua esleitu eta gero.

Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoariaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

Kontratistak, azpi-kontratazio suposamenduetarako, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 227 artikuluan aurreikusitako betekizunak bete beharko ditu.

#### **HEMERETZIGARREN KLAUSULA. Prezioen berrikusketa:**

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira, sinatu zenetik bi urte igarotakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 89tik 94 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Berraztertzea dagokion edo ez, eta kasu horretan aplikatu daitezkeen prozedura eta indize espezifikoa, arauz onartutakoan artean kontratu honetako kostuen eboluzioa egokien islatzen dutenak izango dira.

Prezioen berrazterketa onartzea dagokion unean berrazterketa hori egiteko dauden kasuak onartu barik egonez gero, ez dira prezioak berrikusiko

#### **HOGEIGARREN KLAUSULA. - Bermealdia:**

Kontratuaren objektuak, urte beteko berme epea izango du, hartua izan denetik edo zerbitzua edo lanaren aurrean adostasuna adierazten denetik hasita. Epe horretan Administrazioak, egindako lana edo zerbitzua, bera gauzatzeko ezarritako betekizunekin eta Plegu honetan eta Baldintza Teknikoek Pleguetan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatu ahal izango du Berme epea igaro eta egindako lanen edo zerbitzuen aurrean zalantzarik ez bada, amaitutzat emango da kontratistaren erantzukizuna.

Berme epean, egindako zerbitzu edo lanetan bizio edo akatsik antzemango balitz, kontratazio organoak haien konponketa kontratistari erreklamatzeko eskubidea izango du.

#### **HOGEITABATGARREN KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua Baldintza Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoaren arabera gauzatu da eta haren interpretaziorako, kontratazio organoak kontratistari emandako aginduekin bat etorritik.

#### **HOGEITABIGARREN KLAUSULA Ez betetzeagatiko zigorrak.**

—Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan burutu gabe badu kontratua, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko, zigorrak ezartzea.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo aurrez ezarritako zigorrak ezartzea.

Zigorrak, kontratazio organoaren erabakiz ezarriko dira; erabaki hori, kontratuaren arduradunaren - balego- proposamenaz hartuko da, eta berehala betetzekoa izango da. Kontratistari, guztizko ordainketa edo zatikako ordainketa kontzeptuan ordaindu beharreko kopurutik kenduta gauzatuko dira edo, ziurtagiri horietatik kentzea posible ez bada, bere kasuan ordainduta duen bermetik kenduta.

#### **HOGEITAHIRUGARREN KLAUSULA Kontratua Bertan behera uztea**

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak, Plegu honetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 237 artikuluetan zehazten direnak izango dira.

Kontratua, kontratistaren erruz bertan behera geratzen bada, behin betiko bermea bahitu egingo da, Administrazioari sortutako, bermearen zenbatekoa baino handiagoak diren kalte-ordainak ordaintzea kaltetu gabe.

#### **HOGEITABIGARREN KLAUSULA Kontratuaren Erregimen Juridikoa**

Plegu edo Orri hauen arabera egindako kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta bere gauzatzeko, esleipen, ondorio eta iraungitzeari dagokionez Pleguetan ezarritakoak arautuko du eta kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, ondoko arautegia aplikatuko da: azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, Sektore Publikoaren Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, eta indarrean badago 817/2009 ED indarrean sartu ondoren eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioetako Kontratuen abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretua; osagarri gisa, zuzenbide administrazioetako gainontzeko arauak aplikatuko dira eta haiek ezean zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 21.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Aretxabaletan 20\_\_\_(e)ko .....ren..... ( e) an

ALKATEA

Sinatuta: : \_\_\_\_\_

## ERANSKINA.- KIROLDEGIAREN GARBIKETARA ATXIKITUTAKO LANGILEEN ZERRENDA.

### ANEXO.- RELACION DE LAS PERSONAS ADSCRITAS AL SERVICIO DE LIMPIEZA DEL POLIDEPORTIVO.

LANGILEAK	ANTZINATASUNA	KATEGORIA	KONTRATUA	ASTEKO ORDUAK
BAT	2015/02/16	TALDEKO BURUA	501	16,25
BI	2015/02/01	GARBITZAILE	501	12,25
HIRU	2015/02/01	GARBITZAILE	501	22,25
LAU	2015/02/01	GARBITZAILE	501	16,25
BOST	2015/04/25	GARBITZAILE	501	7,00
SEI*	2016/04/18	GARBITZAILE	510	7,00
ZAZPI**	2015/02/01	GARBITZAILE	501	7,00
ZORTZI***	2016/11/12	GARBITZAILE	510	7,00

\*Langile baten eszedentzia dela eta, seigarren langilea bere ordeztzen ari da lanean.

\*\* Baja IT

\*\*\* Zazpigarrenaren IT ordeztzen ari da.

Aplikagarria den hitzarmena: Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbikuntzaren hitzarmen kolektiboa, 2010-2017 (2015eko martxoaren 26ko GAO)

## **PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA LIMPIEZA DEL POLIDEPORTIVO IBARRA**

### **CLÁUSULA PRIMERA. Objeto y Calificación**

Es objeto del contrato de servicio la limpieza del polideportivo Ibarra de acuerdo con lo dispuesto en el presente pliego y en el pliego de prescripciones técnicas.

Codificación de la nomenclatura CPV: 90911200-8

Los servicios a prestar podrán ser de 2 tipos:

- servicio básico.
- servicios opcionales:
  - limpiezas puestas a punto.
  - limpiezas materiales concretos.
  - limpiezas extraordinarias.

Tanto en las limpiezas básicas como en las opcionales, el número de horas de servicio propuesto por los licitadores tendrán carácter estimativo y, tras la adjudicación los Servicios Técnicos Municipales, en caso de ser necesario, ajustarán el número de horas efectivas de servicio, sin que ello suponga derecho a percibir ningún tipo de indemnización por el adjudicatario.

En cumplimiento del artículo 6.1 de la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública, la empresa adjudicataria deberá subrogarse como empleador en los contratos de trabajo de las trabajadoras cuyas características figuran en el anexo de este pliego.

El contrato definido tiene la calificación de contrato administrativo de servicios, tal y como establece el artículo 10 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

### **CLÁUSULA SEGUNDA. Procedimiento y Forma de Adjudicación**

La forma de adjudicación del contrato de servicio de limpieza de edificios públicos será el procedimiento abierto, en el que todo empresario interesado podrá presentar una proposición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato, de acuerdo con el artículo 157 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

Para la valoración de las proposiciones y la determinación de la oferta económicamente más ventajosa se atenderá a varios criterios directamente vinculados al objeto del contrato, de conformidad con el artículo 150.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre y con lo establecido en la cláusula octava del presente Pliego.

### **CLÁUSULA TERCERA. Perfil de contratante**

Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a su actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, este Ayuntamiento cuenta con el Perfil de Contratante al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página web siguiente: [www.aretxbaleta.eus](http://www.aretxbaleta.eus).

### **CLÁUSULA CUARTA. Importe del Contrato**

El importe del presente contrato asciende a la cuantía de 109.572,06 euros/año, al que se adicionará el Impuesto sobre el Valor Añadido por valor de 23.010,14 euros, lo que supone un total de 132.582,20 euros/año.

En las proposiciones que formulen los licitadores y en la cifra precisa, concreta y determinada, así como en los precios ofertados, en lo que se adjudique el contrato se entenderán siempre incluidos, a todos los efectos, las cuotas correspondientes a los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de toda índole que graven los diversos conceptos y, en especial el impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) y el beneficio industrial.

